


Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko martxoak 27 / II. urtea / 17. zenbakia

Zeruari begira

Lehortea genuela eta, denok kez-kati genbiltzan, zeruari so. Bapatean, baina, elurjasa eta haize bilduak heldu ziren, eta igeritokiak irekitze-ar bazeuden ere, bero-kiak eta txanoak berreskuratu ditugu berriro. Txantxa eta algararako aitzakia da askorendako, baina nekazariak beldur dira oso eragindako kalteaz. Urtegiak ez dira aski beteak, mende honetako negurik sikuenan izan delako, eta eguraldia igartzea gero eta bizibide zailagoa da. Izan ere, gizakumeak berak sortutako aldaketa baten lehendabiziko emaitzak omen dira honakoak, baina azken ondorioak antzemanenak dira oraindik. Bitartean, zeruari begira.



Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Politikariek, gizarte osoaren ordezkari nahi baldin badute izan, beren ghettototik atera beharko dute noizbehinka burua.

Gabriel Urralburu nafar sozialisten idazkari nagusiak esandakoen haritik datokit burutazioa. Presidente izandakoari azkenekoak entzun eta badirudi gaztaren modura, kristalezko kanpai baten barnean bizi dela, errealtatetik guztiz urrundua. Duela bost egun plazaratutako adierazpen batzuetan ezkaroztarrak dio Juan Cruz Alli presidentearen jokabideak nahasketa besterik ez duela sortzen gizartean.

Ai gaixoa! Hiritarren iritzia etzaizu iristen edo behar bezala ez behintzat zure kristalezko mundu itxi horretara. Horretaz sinisturik bazaude, aholkuren bat eman beharko diogu, azkenaldian horrenbeste kontsultatzen duzun zure sikiatra horri.

Alliren ideolojiarekin ados egotea ala ez, hori kontu bat da eta bestea ordea, erakusten ari den jokabide irekiaz esan daitekena.

Aurreko lehendakariak zeukan portaera eta Allik duena parekatu eta zail xamarra izanen da zalantza izpirik edukitzea inork orain arte gauzak nork bideratu dituen hoberen esaterakoan. Urralburu agintean zegoenean hiritar normalen goitik bizi zen, beste kategori batetan nunbait eta hara nun etortzen zaigun orain hiritar arrunten artean mintzatzea eta bere inguruen ideologikotik kanpora ibiltzea ere gustoko duen presidente bat. Aita Gabriel izandakoa txaloak jasotzera joaten zen noizpait Korella edo San Adrianera. Bere iritzia nagusia edo ongi finkaturik zegoen tokietan gustora paseiatzen zen. Sakanaan edo Bortzirietan etzen ordea askotan ikusten bere dotorezia. Elgorriagara joan zen behin, bere bigarren legealdia amaitzeaz zegoelarik eta Malda-erreka, hau da, zegoen eskualdeko izena aipatzen ziotenean Urralburuk hura zer zen galdetu zuen. Ez omen zuen sekulan horrelakorik aditu. Malda-errekako alkate batek beste bati honela mintzatu zitzaion orduan: «Erraten nizan ba, existitzen ginenik ere etzekiela honek».

Lesakako Laminazioetan kezka larriak dituzte egun eta Alli hara bertaratu zen azaroan lehenbizi eta duela hamar bat egun bigarren aldiz. Laminazioetako langileen artean UPNeko jende gutxi dagoe-la ongi jakin arren. Ikusi eta entzun beharko zenituzke Urralburu jaunaz, Laminazioetako langileen ordezkariak esandakoak. UGTkoetatik hasi eta LABekoetaraino guztiek eskertu zuten biziki Allik beraiekiko izandako deferentzia. Etzeuden horrelakoetara ohiturik, nunbait. Diputazioko funtzionarioei antzekoak entzun dakizkieke, baita UGTkoei ere. Ez dira oso desberdinak izan sindikatuen artean jasotakoak euskararen presentzia lan munduan bultzatzeko Hizkuntz Politikarako ordezkariekin batera egindako asmo-aurkezpenen. Eta hauxe mundu sindikatean bildutako zenbait printza dira soilik.

Zenbat aldatu dira asmoak eta moduak nafar sozialisten eremuan!

Bide bazterretan erahildako gure aita-txi sozialistek burua altxatuko balute!!

Barnean

SAKANA



Lanak aurreratuta ere, autobidearen auzia ez da itzali/V

DROGA



Taldeek ez dute gaia politikarien esku utzi nahi/VII

Gure Aukerak

MINTZALDIAK



'Gazte mugimenduak' orain zenbait urte eta gaur egun 'izeneko mahaingurua izanen da gaur ostirala, martxoak 27, ilunabarreko zortziretan Zaldiko Maldiko elkarteak. Mahaikideak hego eta iparraldetik etorritakoak izanen dira. Mahaingurua IKAko Arturo Kanpion euskaltegiak antolatuta du, bere 20. urteurrena dela eta.

'Himalaya: azken monzoia' izenburupean Jose Luis Larreak diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, martxoak 27, arratsaldeko zortziretan, Nafar Kirol taldeak Jarauta kalean duen aretoan.

Udako Euskal Unibertsitateak eta Iruñeko Udalak antolatuta, datorren astean ihardunaldiak izango ditugu Iruñeko Hizkuntz Eskolan. Astelenean, martxoak 30, Jokin Apalategi arituko da europear batasunean hiritarrek biziko duen egoeraz. Martxoaren 31an Iñaki Antiguaderek lehengaiek Iparra eta Hegoaren arteko erlazioetan duten paperari buruzko hitzaldia emanen du. Apirilaren 1ean Txelo Ruiz ordenadore eta giza inteligentziaz arituko da. Ostegunean, apirilak 2, Anton Mari Aldekoa-Otalorak Ama Lurraren urtaroez hitz egingen du. Hitzaldi guztiak arratsaldeko zazpi

Herri hutsen artean

1845ra arte, Urraul Beiti, Urraul Goiti eta Romanzadua, Liedenaekin batera, elkartuta zeuden, eta diputatu eta guzti zuten. Batzarreak San Gregorioko Ama Birjinan egiten zuten, Artieda herrian. Lehen ere Aietxu ibarra zegoen, baina XVII. mendean Urraul Goitin sartu zen.

Arripodas Urraul Beiti da beraz, baina hori da Urraul Goitin barnertze tokirik aproposena. Bertan nabarmenezkoa da frontoi ondoan dagoen harrizko gurutzua, XV. mendeakoa.

Zonalde osoa gaitz berak jota dago: despopulazioarena, alegia. Herri hauetako askok ia ez du biztanlerik dagoeneko, eta beste makina bat desagertu zorian daude.

Imirizaldutik Aikoako trikuharriak bisita daitezke, Areta ibarraren biertzetatik, eta Aikoako potxaren ondotik. Aietxun La Rajako baseliza dago, abandonatuta baina. Bertatik mendira irtenaldiak egin daitezke, bai Borrotulora nola Aldasurrera. Azken ho-



netan gurutze erraldoi bat dago ton-torrean.

Elkoatz ere aproposa da mendi irteerak egiteko, eta Motxorro, Borrosko eta Erremendia gainak egin

daitezke bertatik.

Adoainen, bestalde, San Esteban eliza da azpimarratzekoa, eta baita Florentino izeneko zubia ere, Aldasurrant jaioz den errekararen gainean.

Alberto Diaz 'Korda' argazkilaria famatuaren erakusketa ikusgai izanen da Nueva Imagen erakustaretoan, Iruñeko Gorriti kalean. Argazkilaria cubatarra Che Gevararen argazki ospetsuaren egilea da, eta egun hauetan bere obraz gozatzeko aukera izanen da Iruñean.

MUSIKA



Trio Calavera Quarter taldea datorren ostegunean, apirilak 3, arituko da Iruñeko Niza Kafetegian, arratsaldeko 9.30etan. Eskainiko duten saioan Napolitanak abestuko dituzte.

Zartako eta Mortis Causa taldeek joko dute gaur ostirala, martxoak 27, Altsasuko gaztetxean, gaueko 10.00etan. Musika Saio hau intsumisioen aldeko jaialdiaren barruan dago.

IHARDUNALDIAK



Abertzaletasunak European gaiari buruz mahaingurua izango da gaur, Iruñean arratsaldeko 19.30etan, Zutik alderdiak (lehen EMK-LKI zena) antolaturik. Mahaikideak Iñaki Esnaola, J.Iriarte 'Bikila' eta Francisco Letamendia 'Ortzi' izango dira. Mahaingurua Hizkuntz Eskolako aretoan izango da, Caldereria kalean.

t'erdietan izanen dira.

KIROLA



Mikel Saralegi harrijasotzaila, duela aste gutxi bere marka hautsi zuena, Donezteben arituko

da igandean eguerdikoko hamabi t'erdietan. Leitzarrak 300 kiloko harriarekin bost minutuko saioa egingen du. Migeltxo Saralegiarekin batera Patxi Mindegia aizkolariak bere indarra erakutsiko du igandean Donezteben.

ERAKUSKETAK



Aniel-Quiroga pintore gasteiztarren margoak egonen dira ikusgai Lan Kide Aurrezkiak Iruñean duen erakustaretoan, gaurtik datorren hilaren 12rarte.

ERRAN DUTE

«FMko lizentzien banaketaren atzetik goitik beherako fraudea dago».

Iñaki Cabases

EAKo parlamentaria

«Inbidia diot Arzalluzi, politika munduan duen pateragatik».

Gabriel Urralburu

PSNko buruzagia

«Futbol zelaian ez dago lagunik».

Juan Antonio Goikoetxea

Barcelonako jokalaria

«Parlamentuak onartutako trazaketa ez da milimetro bat ere aldatuko».

Miguel Sanz

Lehendakariordea

ASTEKO PERTSONAIAK

Txomin Ezponda



Bertsolaria

Bertsolari jatsuiarra joan den igandean Luzaiden egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioan nagusi atera zen, Joxe Migel Argiñarena eta Urko Atxutegiren aurretik. Berarendako izan zen ere gartzelako gaian botatako bertsorik onenari emandako saria. Bertso saioa udaletxepeko salan egin zen, eta 120 entzuleek areto txiki eta txukuna bete egin zuten aisa. Beste batzuk, tartean bertsolari ospetsuak, zutik eta kanpotik aditu behar izan zuten saioa. Antonio Sanchez bertako kultur arduranak lokal handiagoa bilatzeko hitza eman zien bertaratutakoei, beste urte batean bertan errepikatuz gero. Ezpondaren saio ona iragarrita zegoen nolabait, betidanik oso erregular aritzen duen horietakoa bait da jatsuiarra. Orain laugarren da puntuazio orokorrean.

Fermin Tajadura



Mepamsako presidentea

San Antonioko presidentea Skritika gogorak jaurti zituen joan den asteburuan Espainiako Eskubaloi Federazioko presidentearen kontra, kargurako ez zuela balio adierazi bait zuen. Honek haserrea piztu zuen federazioan eta baita Nafarroako ordezkarien artean ere, egunotan jokatzeko bait zen kopako finala Iruñean, eta azkenean barkamenak eskatzeko gutuna bidaliko dio Tajadurak federazioko presidenteari. Hala ere, ez du atzera egin bere salaketetan, eta Iruñeko taldeari «adarra ongi jo diotela» adierazi zuen asteazkenean. Izan ere, asko eta askok botatakoa kritikatu bai, baina aferaren arrazoiak ez dituztela ongi aztertu eta, kexu dira San Antonion. Honen atzetik Mapamsako bi partaidek bete behar izan zuten zigorra egon da, kopan beren partaidetza eragotzi zuena.

Alberto Gonzalez



NUPko errektorea

Juan Cruz Alli lehendakariak Jerrektorearen dimisiorako argudiorik ez zegoela adierazi zuen joan den astean, eta bere konfidantza osoa bazuela iragarri zuen. Horrela amaitu nahi izan zuen Gobernuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektorea kolokan jarri zituzten esames eta zurrumuru guztiekin. Izan ere, NUPko bost ordezkari errektorearen zesea eskatu zioten presidenteari, bertan zegoen egoera «jasanezina zelako». Bost ordezkari hauek Unibertsitateko estatutuak ez betetzea leporatu diote Gonzalez, baina honek behala erantzun zien esanez unibertsitatea erabat finkatu arte «tentsio uneak» ezinbestekoak izanen zirela. Hau dela eta, Gonzalezek zera azpimarratu zuen: bakar bakarrik Alliren konfidantza galtzekotan egingo zuela alde.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratisaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Hirugarren saioa, Sunbillan igandean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Donazarre eta Luzaideko saioen ondotik, Sunbillan erabakiko dira heldu den igandean, hilak 29, Gaiarreko finalera azalduko diren zortzi bertsolari nafarrak, hogeitabatgarren txapel horren bila, eta Manolo Arozena lesakarraren txanda hartu nahian.

Saio ezin interesgarriagoa heldu den igandekoa, eta Sunbillan dena prest, ikusmin handia sortu bait da bertan eta Nafarroa osoan.

Sarrera eta giro bikaina, beraz,

espero dira Malerrekako herriko frontoian.

Interesgarria, gauza askoren-gatik. Lehendabiziz, azalduko diren 'zaharren' artean mail ona bistakoa bait da. Hor izango dira Manolo Arozena iazko txapel-

duna, eta Nafarroako bertsolarien artean egun ondoen aritzen dena; Bittor Elizagoien arraiotarra, askoren ustez txapeldun izateko dohai guztiak dituena; eta Jean Louis Harinordoki 'Laka' baigorriarra, azken finalerako ezinbesteko partaidea. Beraiekin batera Joxe Fermin Argiñarena errazkindarra, Bautista Mada-

riaga arantzarra eta Jose Mari Fa-goaga iturendarra.

Manolo Arozenaren kasua bixia da oso bertsolaritzaren barruan, eta arras adierazgarria, era berean. Goizuetan jaio baina Lesakan bizi den bertsolari honen lehendabiziko partehartzea 1988an izan zen, Eiheralarren (Nafarroa Beherea) jokaturako saioan. Finalera heldu eta txapeldunordea ere gelditu zen orduan Arozena, Mixel Xalbadoren atzetik.

Hurrengo urtean ere bigarrena

izan zen, Ernest Alkhaten gibelatik, eta hurrengo bi urteetan, 1990ean eta 1991n, txapela janztea lortu zuen. Lehendabizikoa taldeka egin zen modalitatean, eta bigarren bakarka. Aurtengo txapelketan ere be-

ra da faborito nagusia, ez bait da alferrik aritu aurten, inor baino gehiago uda eta bestelako bertso saioetan.

Bittor Elizagoien, 'Laka' eta Argiñarenak ere maila emango diote, dudarik gabe, Sunbillako saioari. Beraiek izan dira azken urteotan finalean aritu diren horietakoak, beti puntaren puntan.

Bertso gazteak —esanahi guztiakin— aditu nahi dituenak Sunbillara hurbil dadila, Negu Gorriak-eko txanoak izango bait dira bai taula gainean nola aulkien artean, ohizko txapelekin nahasita.



Bittor Elizagoien eta Xalbador iazko finalean.

CARLOS VILLAGRAN

Baina berria gazteen artean dago, nahitanahiez. Estitxu Arozena eta Xabier Silveira lesakarrak izan ziren protagonista gazteen azken txapelketan, eta beraiek dira, Urko Atxotegirekin batera, Nafarroako bertsolaritzaren aurpegi berria, sekulan Nafarroak izan duen aurpegiarik gazteena, alegia.

Etzetik gertu kantatzea nerbioak kentzeko lagungarria izango zaie biei, baina inor ez dadila joan Malerrekaldera txapela horien buruetan ikustera. Ez

litzateke zuzena izango. Izerdi berria plazaratzea da asmoa, ez txapelaren zama goizegi inori leporatzea.

Bertso gazteak —bere esanahi guztietan— aditu nahian dabilena hurbil dadila Sunbillara, Negu Gorriak-eko txanoak izango bait dira bai taulan nola aulkien artean, ohizko txapelekin nahasturik. Baina inork ez dezala eska zoratzeko errimak, neurri gozoak edota doinu berriak. Ez oraindik.

Aurreko bi saioen ondotik, Kexux Arzallus da sailkapeneko

buruan, baina berak, beste urtez, ezin izango du Gaiarreko saioan parte hartu. Ondoren Mixel Xalbador dago, 544,5 punturekin, eta atzetik, Ernest Alkhat, 523 punturekin; Txomin Ezponda (520); Joxe Migel Argiñarena (505); eta Urko Atxutegi (490,5).

Saioa arratsaldeko lauretatik aurrera izango da bertako frontoian, eta aurretik, ohizkoa denez, bazkaria izango da bertsolari, epaimahai eta nahi duten zale-tuen artean. Bazkarirako izena emateko telefonoa: 22 82 32.

Zaldiko Maldiko Elkarteak bazkide berriak lortu nahian

P.U. / IRUÑEA

Zaldiko Maldiko Iruñeko Elkarteak jende berria bilatu nahian dabil, edo ahalegin berri eske. Bazkide bila, finean. Horretarako, kanpaina bati ekin diote Antsoleaga kalean, eta erreztasun franko eskeintzen dituzte Parte Zaharreko kaleko lokalean euskal giroa topatu nahi duten guztiendako. Bazkide izateko egin beharreko diru sarrera 15.000 pezetakoa izango da, eta hileroko milaka pezetako kuota ordaindu beharko da. Hala ere, langabetu zein ikasleendako tarifak merkeagoak izango dira, nahi epetan ordaindu ahal izatekoak.

Egun 130 bat bazkide du 80ko hamarkadaren hasieran sortu zen elkarteak, eta asmo onenek oraingo kanpaina honetan beste berrögeitamar bat lortzea lukete helburua.

Ez bakarria da helburu bakarra, baina jende kopurua handituz gain, berpizteko nahia ere antzeman daiteke kanpaina honetan. Sortu zenetik hona gauzak franko aldatu dira Iruñeko euskaltzaleen artean, eta elkarteak sortzen zuen kultur eskeintza hasieran ia bakarra izanda hiri osoan, gaur egun



Antsoleaga kaleko egoitza.

JOXE

aniztu da nabarmen. Horretaz aparte, bazkideen artean ere somatu omen dute lan egiteko gogoak ez direla lehengokoak, eta jende berria ari dira bilatzen. Taberna zabaltzeko ideiak ere jatorri bera izan zuen, hau da, elkarteak ahalik eta zabalen egitea.

EREDUA BESTE ASKORENDAKO Zaldiko Maldiko ideia ongi saldu da, eta horri imitatuz, antzeko elkarteak sortu dira beste zenbait herritan, hala nola, Burlata, Atarra-

bia, Uhartea eta Barañainen. Altsasun ere euskal txokoa sortu nahian dabilta, eta tokiz tokiko ezaugarriak arras desberdinak izanda ere, izan dute eta badute zer ikasi Iruñeko esperientzia hartuta.

Izan ere, arazoak ez bait dira falta urte hauetan, hasi lokala eta bizilagunen arteko tirabirekin, nola taberna, denondarako ireki baino lehen, izan zen motelaldiarekin. Egun berpiztuta berriro, orain esku dagoen eskeintza erakargarria izango da askorendako.



Manolo Arozena.

CARLOS VILLAGRAN

Negua errogatibekin bukatu genuen eta udaberri hasierak elurra eta euria ekarri dizkigu. Botatakoak, ordea, ez du lehortearen arazoa konpondu. Mendebaldeko larreak hezetasuna berreskuratu dute, baina Erriberan euri gutxi egin du eta nekazariak kezkatu daude. Izan ere, aurtengoa mende honetako negurik lehorrena izan da eta normalean jasotzen den uren % 30era ez gara ailegatu azkeneko hiru hilabeteotan. Adituek esan dutenez, udaberriak euritsua izan beharko du lehortearen eragin latzak ez jasateko.

Botatakoak ez du lehortearen arindu

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Nafarroan zehar azkeneko asteotan egin diren errogatibak entzunak izan dira nonbait. Jose Maria Zirarda Iruñeko artzapezpikuak euria egiteko otoitzak errezatzeko eskatu zien kristau guztiei otsailean. Martxoaren hasieran Behartsuen Senidetxoen kongregaziokoak sistema berezi hau praktikara eraman zuen. Kasualitatea ala erantzuna, zeinek daki? Baina iparhaizea nagusitu da aste honetan Nafarroan eta berarekin euria eta elurra ekarri ditu komunitatera eta Euskal Herri osora.

Errogatibei ere mugak ezarri behar zaielakoan daude batzuk, edota hitzak aldatu bestela, kazkabarra eta elurra ez bait genuen espero. Udaberria hogeitigarrekin estreinatuta genuen larunbatean, baina berehala aldatu da eguraldia eta neguko tenperatura gogorak gogoratu ahal izan ditugu egunotan.

Dena den, nahiz eta euria egin denon ahotan zegoen lehortearen arazoa konpontzeke dago oraindik. Mende honetan jasan dugun negurik gogorrena izan da aurtengoa, azaroaren 20tik Nafarroan ez bait dugu ia ur tantarik ikusi. Ur hauek ez dute ordea, negu lehorrak urtegitan eta nekazaritzan egin dituen hondamenak konponduko.

«Martxoko egun euritsu batean normala da metro karratuko 80 litro biltzea eta aste honetan bost litro inguru jaso ditugu batezbeste» esan zuen Noaingo Institutu Meteorologikoa. Nafarroako beste eskualdeetan ere

euria egin du, batez ere Kantauri aldean, baina esan bezala garai honetako urak dira. Antonio Gordo Institutu Meteorologikoko teknikariak esan zuenez, «honek ez du esan nahi udaberri euritsua izango dugunik. Ez daiteke jakin lehorteak jarraituko duen ala ez. Hala ere, hurrengo astetan

Negu normal batean jasotakoaren % 30era ere ez gara ailegatu aurten. Honela bada, hurrengo hilabeteetan % 100 baino gehiago bota beharko du egoera normal bat lortzeko, eta udan murrizketak ez izateko.

ez badu horrela jarraitzen lehortearen ondorioak jasan beharko ditugula argi dago».

Negu normal batean jasotzen diren ur kopuruen % 30era ere ez gara ailegatu aurten. «Horrela bada hurrengo hilabeteetan % 100 baino gehiago egin beharko du egoera normal batera ailegatzeko eta udan ur murrizketak ez izateko» dio Antonio Gordok.

URTEGIAK ERDI HUTSIK Nafarroako urtegiak erdi hutsik daude oraindik eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoen arabera «egoera nahiko kezagarria da, batez ere berehala hasiko delako ureztatze kanpaina eta Ebroko ibarrako sestra % 45ean dago Nafarroan». Dena



den, nahiz eta elur asko ez duen bota asteotan, apur horrek urtegien egoera arindu egingen du urtzaroan.

Erriberan, bestalde, ez du euri askorik egin eta nekazariak oraindik ere kezkatu daude. UAGNko presidentea den Angel Eraulek esan duenez, «Erriberako lurrek askoz ere ur gehiago behar dute. Gure kezka zertxobait arindu dira baina horrela jarraitu behar luke arazoak ez izatearren». Labore uztak galdutzat eman zuten jakintsuek lehengo astean, baina euri hauen ondorioz batzuk errekuperatu egingen direlakoan daude.

Labore eta esparrago uzta batzuk jadanik galdu egin dira lehorte dela eta, «batez ere goiz jarri zirenak, beste batzuk berriz errekuperatu ahal izanen ditugu bota dituen uren ondorioz» azaldu du Angel Eraulek. Mahasti uzta izan da on handiena izan duena. Nahiz eta garai landatu zirentzat beranduegi izan, esparragoak ere eskertu egin ditu ur hauek.



Bi irudi guztiz desberdinak, baina oso epe laburrean hartutakoak. Iragarrita dagoen klima aldaketarekin orain arte ezagutu ditugun uztaro eta garaiak ere alda litezke.

Dena den, UAGNkoak ez dira baikorregi azaldu ibaiak oso ur gutxikin datozte eta. «Horrek agerian uzten du jasaten ari garen egoera kezkarria». Horren lekuko dugu, astazkenean Ebroko 32 metro kubiko segunduko besterik ez zeramatzala Castejonon.

Adituak kezkatuak aldaketa klimatikoak direla eta

I.I. / IRUÑEA

Meteorologoa kezkatuak dabilta azkenaldian lehorte eta aldaketa klimatikoak direla eta. Aditu guztiak ados daude lurra 2.050 urterako hiru lau gradu berotuko dela esaterakoan. Ez da txantxetako igoera hau, orain arte milaka urte behar bait ziren horrelako aldaketa izateko. Baina honako hau ez da aldaketa naturala izanen.

XIX mendean hasitako iraultza indutsialak ingurugiroa poluitu egin du eta atmosfera anhidrido karbonikoaz bete. Azal poluitu honek berotegi bat bezala funtzionatzen du eta ez du beroa xahusten uzten. Honen ondorioz luraren tenperatura era artifizialean berotzen da.

FLORA ETA FAUNAREN ALDAKETA Aditu guztiak ados daude puntu honetan. Non izanen diren aldaketa

nagusiak zehazteko orduan urruntzen dira iritziak. Hala ere, meteorologo gehienek ustetan Europako hegoaldeak jasango du igoera nabarmena. Tenperatura berotzearekin batera, ur gutxiago botako du alde honetan. Horrela bada gertu izan dezakegu

Meteorologo gehienek ustetan Europako hegoaldeak izango du tenperatura nabarmena. Honekin lotuta, ur gutxiago botako du, eta gertu izan dezakegu flora eta faunaren aldaketa ere.


flora eta faunaren aldaketa ere.

Dena den, nazioarteko zientzialari guztiak ez dira iritzi honetakoak. Batzuen ustez tenperatura

berotzearen ondorioz, ur gehiago lurrunduko da eta honek euri gehiago ekarriko du. Aldaketa honen eraginak bada, zehazteke daude, oraindik.

Neguan jasan dugun lehorte zikloaren hasiera izan den ala ez, ez daiteke esan oraindik. «Urte mordo bat pasa behar dute hori jakin ahal izateko —azaldu du Alberto Gordo Zaragozako Institutu Meteorologikoko adituak—. Baliteke lehorte pasatzea eta ohizko euriak botatzea hemendik aurrera. Inork ez dezake esan aldaketa hasi denik».

Gauzak horrela zientzia fikzioa errealitate bilakatu daiteke eta Euskal Herriko ezaugarrietako bat diren larreak desagertu egin litezke hemendik mende gutxitara. Edota, aldiz, gerta litekeena da ere, Hertzainak-en Euskadi tropikala egia bihurtzea, eta kokotropean pasa ahal izatea aintzinean negu hilabeteak zirenak.



URTEGIAK erdi hutsik auzkagu Nafarroan.

Esakoa, komunitateko handiena alegia, bere kapazitatearen erdian dago eta besteak ere proportzio horretan dabilta. Garai honetan normalean bete beteak egoten dira, eta aste honetako eguraldi txarra udaberri osoan jasan beharko dugu, udan ur murrizketak ez baldin baditugu izan nahi. Eguntako euria eta elurra ez da ia batere nabaritu urtegitan, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko adituak kezkatu daude, berehala hasiko bait da Erriberako lurren ureztatze kanpaina.

Sakanako autobideko proiektu ofizialak ezezkoa jaso zuen haste hastetik bertako mankomunitatearen aldetik, baita ondoren sortu zen herrietako batzordearen aldetik ere. Lanek, baina, aurrera egin dute, eta mankomunitateak lehengo jarrerari uko egin badiot ere, aldaketa politikoa medio, batzordeak berearekin segitzen du,

dearen aldetik ere. Lanek, baina, aurrera egin dute, eta mankomunitateak lehengo jarrerari uko egin badiot ere, aldaketa politikoa medio, batzordeak berearekin segitzen du,

iaz egindako txostena udalez udal aurkezten. Egoera, ez dago guztik itxita, eta lanek aurrera nabarmen egin badute ere, batzordea oraindik aldaketak lor daitezkeelakoan dago.

Sakanako autobidea, akordioaren zain

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Sakanako autobidearen gaia ez dago itxita, inondik inora. Etxarren-Irañeta eta Irañeta - Lakuntza lehendabiziko bi zatien lanak aurreratuta nabarmen, Lakuntza eta Altsasu arteko beste biak desjabetzeak eta lan kontratazioak gauzatzearen zain daude.

Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkatea proiektu ofizialaren aldeko jarreraren garbia hartu du azkenotan, joan den asteko NAFARKARIAN, besteak beste, eta zona osorako «funtsezko lana» zela adierazi zuen.

Sakanako Herrietako Batzordeak, baina, bere horretan segitzen du, eta Mankomunitateak iaz aurkeztutako txostenaren alde ari da lanean.

Bertako udalen artean ere bi aldetako jarrerak daude, baina azken hauteskundeetan Mankomunitatean izandako aldaketak egoerari buelta eman dio.

Joan den astean Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkateak aurrikuspen falta leporatu zion Mankomunitatearen proiektuari, eta horri erantzun nahi izan dio Herrietako Batzordeak, Patxi Satrustegi bere bozeramalearen birtartez. Satrustegiren esanetan, Mankomunitatearen txostenean garbi azaltzen zen proiektua urtetarako baliagarria zela, «eta modu teknikoan erakusten zuen beste alternatibak ere badaudela, arrazionalagoak eta kalte gutxiago eragiten dutenak».

Lanak aurrera doaz garbi eta azkar, eta ez omen dago, hasierako zatitan, behintzat, aldaketa handirik egiteko aukera. Batzordearen ustez, baina, honek ez du bere proiektua guztiz ukatzen, zenbait gauza egiteko garaia badelako oraindik. «Lanak ongi ha-

siak izateak baldintzatzen du edozein planteamendu teknikoa, baina oraindik badago aukera, eta une ona da proposamen berriak egiteko. Gure proposamenak orokorrak dira, trazaketa osoari eragiten diotenak, eta bestalde, badaude zenbait zehaztasun teknikorik. Hala ere, biak batera eztabaidatu nahi du batzordeak».


Batzordearen hasierako jarrera saihebidetaren aldekoa zen, baina «eta Gobernuaren presioaren ondorioz», eskakizunak ere moldatu direla azaldu du Satrustegik. «Hala ere, oraingo gure nahia ere ahalik eta kalte gutxien sortzea da, eta lau karril beharrez, alternatiba bigunagoak nahiko genituzke, baina egoerak berak horretara bultzatu gaitu, makina eztabaidekin, beti ere».

Alderdien jarrerak ere zeresan handia du auzi honetan, eta horren lekuko mankomunitatean izan den aldaketak eragin duena: autobidearen aurkako jarrerarik sutsuena eramatetik erabateko ixiltasunera.

Autobidea lau zatitan banatuta badago ere, inguruari dagokionez bi zatitan bereiz daitezke. Etxarrendik Lakuntzarainoko zatia biztanle gutxi duen ingurua zeharkatzen du, askotan bigarren zatia baino zabalagoa, eta oraingo bide berria aprobeztatuko da bertan karril baterako.

Lakuntzatik Altsasurainoan, besfela, ingurua aldatu egiten da, lurrik presio handiagoga bait dute, mota guztietakoa, eta zenbaitetan ere pasabidea estua delako. Biztanle kopuruak, halaber, dexente igotzen da, harrana osoko herririk garrantzitsuenak bertan bait daude.

Satrustegik azaldu duenez, Herrietako Batzordea ere gehiago lantzen ari da bigarren zati hau, udaletxearekin dituzten kontaktuen bidez. «Hor badago pisu berezi bat, Nafarroako Gobernua elkarrizketara bultzarazi dezakeena. Gure plantemendua orokorra da, eta denekin hitzegino dugu, baina lehentasuna



Beriain azpiko harrobiak autobidearen lanetarako.

bigarren zati honetan dugu». Hala ere, erlojupeko proban ari direla onartu du batzordeko partaideak, «behin adjudikazioak emanda maniobratzeko eta eskatzeko tarfe askoz txikiagoa gelditzen bait da».

PROPOSAMENI IREKI TXOSTENA

Batzordearen asmoa da herri guztietan bere proiektua aurkeztea, «proposamenei irekia» dagoela azaldu badu ere. «Herri batek hobekuntzak edo aldaketak ikusten baditu, jaso eta onartu egiten dira, eta orain arte egindako kontaktuetan nahiko jarrera irekiak antzeman ditugu».

Alderdi politikoen jarrerak ere zer esan handia badu auzi honetan, eta horren lekuko Sakanako Mankomunitatean izandako aldaketak. HB beti proiektu ofiziala eztabaidatzearen alde agertu da, eta mankomunitatearen presidentzia izan zuenean hartu zuen erakunde honek proiektu berria egiteko ardura. Mankomunitate bera izan, hain zuzen ere, Sakanako proiektu ofizialaren aurkako jarrera nabarmenena erakutsi zuena. Oraingo presidentea EA-koa izanda, ez da inolako adierazpenik izan, eta gaia zeharo moteldu da.

Satrustegik onartu duenez, gauzak nabarmen aldatu dira.

«Mankomunitatean sekulako aldaketa izan da. Orain arte bera izan da oposizio sutsuena egin duena, eta orain geldialdi batean sartu gara».

«Bestalde —dio Satrustegik— harriztekoa dira egunotan Goikoetxeak egin adierazpenak. Berak esan dituen gauzak —aurrikuspenik ez dela ikusten garrira lanetan edo lur okupazio gehiagi ematen ari dela— guk aspalditik salatuta dauzkagu».

Sakana beti pasabide lekua izan da, eta oraingo autobideak izate hori indartu egingo duela ezin uka. Hala ere, batzordearen ustetan, pasabide hutsa bihurtuko litzateke Sakana.

Bi proiektu edo etorkizunari buruzko bi ikuspegi ezberdin

A.B. / IRUÑA

Gobernua eta Sakanako Mankomunitatearen aginduz egindako proiektuen artean, etorkizunari buruz dagoen ikuspegi kontrajarria izan daiteke desberdintasun handienetakoa. Izan ere, eztabaida handiena ez dago autobidean bertan, ze motako autobidean baizik.

Proiektu ofizialak A-120 izeneko autobide mota aukeratu du, hau da, 120 kilometro orduko abiadura jasan dezakeena. Gobernuaren ustez, autobide honen bidez «irtenbide zabal eta aurrerakoia lortu da, etorkizunari begira». Mankomunitatearen txostenak, bestalde, beste autobide mota batekin —A-80 edo A-100— urte askotan zerbitzu on

bat mantentzeko erakusten du, kontutan hartuz gaur egun dauden beharrak eta aurrikusita daudenak.

Trazaketan aldaketa nagusi bat planteatzen du mankomunitatearen proiektuak. Etxarri-Aranatzen Lizarragaruntz gehiago desbideratzearen alde agertzen da. Utzubarko hariztian

kalteak ez sortzeko. Zabalerari dagokionez, erdibitzailearen zabalera da aldaketarik nagusia. Mankomunitatearen proiektuak 4-5 metrotako erdibitzailea dauka aurrikusita, eta proiektu ofizialean 12 metrokora da. Zazpi metrotako zabalera honek 26 hektarea gehiago hartuko luke autobidearen ibilbide osoan.



Mankomunitatearen txostenaren aurkezpena.

JOXE

	Gobernuaren proiektua	Mankomunitatearen Proiektua
Autobidea	A-120	A-80
Galtzada	15 m.	14 m.
Kanpoaldeko bazter bideak	2 x 2,5: 5 m.	2 x 2,5: 5 m.
Barrualdeko bazter bideak	2 x 1: 2 m.	2 x 1: 2 m.
Bermak	2 x 0,5: 1 m.	2 x 1: 2 m.
Erdibitzailea	12 m.	4-5 m.
Zabalera orokorra	35 m.	24-25 m.
Batazbesteko abiadura	120 Km / o	80 Km / o

Bizi Bizian

Miru beltza

Milvus migrans
Txofraki zarpaila
Migratzaile porrokatua
Nafarroa osoan




Arrainzalea

Oso dotorea, hego luze eta es-
tuak, eta isatsa 'v-ren' tankera-
koa du harrapakin eder honek.
Migratzeko joera handia dauka,
eta negua Afrikan ematen du,
Sahara ondolik. Oso azkarra he-
gan, talde ugarietan biltzen da
ordoki eta larren inguruetan. Ha-
la ere, ondoan beti ura edota ibai
geldoak behar ditu izan, eta baita
zuhaitziak ere, txofrakiak paratu
ahal izateko.

Hegan ari den bitartean ezin
ditu txoriak edo antzekorik ha-
rrapatu, eta nahiago ditu hildako
txoriak, edota belatza handiari
lapurtzen dizkionak. Halaber,
oso gustokoak ditu arrainak, eta
hortik uraren ondoan aritzeko
joera.

Bikote bakarra du miru beltzak
bere bizitza osoan, eta errun bai-
no lehen, arrak beste urtetako
txofraki bera bilatzen du, bertan
arraultzak paratzeko. Txofrakia,
askotan, trapu, plastiko eta beste
'apaingarriz' hornitzen ditu.

Ez dauka arerio asko, baina
arraultz asko ez ditu erruten eta
txorikumeek elkar jan dezaketela
medio, arazoak izaten ohi ditu
espeziek irauteko. Nafarroan,
hala ere, ia zonalde guztietan
aurki daiteke, Erdialdera eta
Erriberan ugariagoa bada ere.



Indiar baten eskutitza

MIREN NAVAZ

Kaixo lagun:

Idazten dizut, gure egoera
(Hego Amerrikar indioen egoe-
ra) zabal dezazun. Gogoan duzu
Brasilatik etorritako gizona?
Urre meategi batetan lanean ze-
goen bere emaztea eta sei seme-
alabak mantentzearen, adierazi
egoerak benetan txarrak direla,
ez dago garbitasunik, airean gai-
xotasuna nabaritzen da, lanean
ihardun zuen kanpamenduan
egoera benetan latza zela, hilabe-
tean gutxienez 10 egun gaixo
egoten zen edo guttiz ahuldurik,
lan egiten ez zuen egunetan di-
rurik ez, eta lan egiten zuen egu-
netan diru gutxi, ezertarako hel-
tzen ez dena.

Urre meategi hau dagoen le-

kuan, lehen, orain dela 70 urte
arte, gure arbasoen bizilekua izan
zen milaka eta milaka urtetan, eta
orain... buruak altxatuko balituz
te, zeinolako ustekabea, eta guk
lotsaturik beste leku batera zu-
zendu beharko genuke begirada.
Dena gizon zuriak etorri bait zen,
lurren berriak, diru ugari...
gehien bat diru egarria beit zeu-
katen, beraien lurren produktua
hustiatu ondoren beste
leku batetan jarri zuten beraien
begirada krudela, eta han geude-
nei guttiz izorratuz, madarika-
tuak! Madarikatzen dut gizon
zuria ezagutu nuen eguna.

Urte honetan '5. Mendeaurre-
na' ospatu behar dute, esanez bi
herien arteko batasuna izan zela,
Europarra eta Hego Amerikarra,
baina ez, mendeaurren honek
beste gauza bat adierazi nahi du,

herri askoren desagertzea, be-
raien kultura, erlijio eta bizimo-
duaren deusezpena.

Zuek gizon zuriak, gure borro-
karen alde egon zaitezke, urruti
gaudenez ze axola. Edo ta, beno,
ados nago, baina zer? Ezer ez, ez
duzue gugatik ezer egiten, gure
egoera ezin duzue ulertu, gure
egoera bakarrik telebistan esa-
nagatik ikusi duzua, baina zuen
etxe eder eta komoditate osoz,
oso ondo eghonen zarete, bene-
tan axola gabe.

Badakigu gure guda galdutzat
eman behar dugula, baina gutxi-
enez egoera hobetzen badugu, as-
ko lortu dugula esan nahiko du.
Honengatik hemendik, zuri
idaztea pentsatu dut, azken azken
aste honetan malaria jota nagoe-
lako, badakit nire egoera larri-
rants jotzen duela, gainera boti-

karik ez dugu, eta gero eta gehia-
go gara hemen. Honen errudunak
gizon zuriak dira, noski, lurren
ezezagun hoietatik gaixotasun
arraro eta txarrak ekarri bait ziz-
kiguten.

Hemendik galdera bat egin
nahi nizuke, ba al dago lekuri-
gizon zuria sartu ez dena? ze
arraio, pakean utziko baligute, ez
gu bakarrik baizik eta Afrikako
beltzak, Ipar Amerikar indioak...
Gizon zuriak, zuria izateagatik
besteak baino gehiago zarela uste
duzuen, ze pena ematen dida-
zue, zeren munduan ez dago ho-
beagorik bestea errespetatzen
duena baino.

Honekin nire eskutitza buka-
tutzat ematen dut, poza handia
emango lidake hortik gugatik
zerbait egiten baduzu.

Agur.

KAZKARROAN

Udaberria

'Triste bizi naiz eta...' doinuarekin Zaldiko Maldiko bertso eskolan
botatako bertsoak.

Negua ondoan
da udaberria
martxoan hasten zaigu
egun pozgarria
orduan jaiotzen da
arbolak hazia
hola ikusten dugu
natura berria

Udaberriarentzat
bada esaera
ta esaten duena
hauze dugu bera
«Siempre la primavera
la sangre altera»
hau zen esaldia ta
hau da bukaera

Aritz Ganboa eta Jon Uribetxeberria

A N T S O A I N U N D Z
T N A T Z A B I Z O E A
O H I B N E R B I N K S
T A F A L L A A T E I B
A R S E R H S R I R B A
A R R A B R O A U R U I
I A A B O N K Ñ L U R S
Z Z O R I M E A Z T L A
U I D K E A Z I A E A S
Ñ L O I M T Z N A N T T
I T N A S U U A T N A L
A L L E R O K T U G E A

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa
honetan Nafarroako
bost mila biztanletik
gorako herri-hirien
izenak. Herri-hirien
izenak ezker eskuin,
eskuin esker, goitik
behera, behetik gora
eta diagonalean ira-
kurrita agertuko zaiz-
kizu.

Zaharrak berri

Nigarrez sortu nintzen, ni-
garrez hiltzeko; ez ordea
munduan beti bizitzeko.

Holaxe ere Euskal Herriko
leku frankotan.

Luzaide

Sendagileak, Kontsulta ba-
tean, esaten dio gaixoari:

—Denbora luzean bizi nahi
baduzu, ardoa baino ur gehiago
edan behar duzu.

—Hori egiten badut laster
hilko naiz, egunean bost litro
ardo edaten ditut eta.

Bizi Bizian

Drogak elkartuta drogaren aurka

Iazko abenduaren 19an drogomenpekotasunari buruz egindako eztabaida baten ondotik, arazo hau aztertze-ko batzordea sortzea erabaki zuen Nafarroako Parlamentuak. Honen helburua gaiari buruzko txosten sendoa prestatzea litzateke, eta joan den hilean ekin zion lanari. Horretaz gain, honen inguruan aritzen diren hamahiru elkarte nafarrek beren txostena prestatu dute, eta ezagutzera eman ondoren, talde politiko eta batzordeari berari aurkezteko asmoa azaldu zuten, beren iritzia kontutan har dezaten. Izan ere, eta haien partaidetako batek azaldu zuenez, «kez-
kagarria litzateke horrelako gaia politikoen eskuetan uztea».

MATTIN KAPITANSORO / IRUÑEA

Antox, Nafarroako Gazterien kontseiluaren drogomenpekotasun arloa, Askagintza, Atarrabiako drogazaleen lagun eta senideen elkarte, Drogazaleei laguntzeko Tuterako elkarte, Lizarrako 'El Camino', Tafallako 'El Roble', HIESaren kontrako hiritar batzordea, Oasis, Gizaki Helburua, Lantxotegi Eskola Tailerra, eta Emauseko Trape-roak dira txostena sinatu eta burutu duten taldeak.

Lau sailetan banatuta, prebentzioa, asistentzia, bergizartearatzea eta droga trafikoa bezalako gaiak jorratzen dira, eta astelehenean bertan talde parlamentario guztiei aurkeztu zitzaizkien. Ondoren, batzordeari berari emango diete.

Horren bitartez, asteleheneko prentsaurrekoan azaldu zuten, beren ekarpena eskaini nahi izan diote osatu berri den batzordeari, «oso kez-kagarria litzatekeelako horrenbeste garrantzia duen gaia soilik politikarien eskuetan uztea».

Taldeek ere «keinu hutsen politikaren ondotik benetako neurriak» hartzeko deia egin zuten, eta batzordearen lanen segimendu zehatza egingo zutela azaldu zuten. Halaber, batzorde honetako bileretan ahalik eta talde gehien partaidetza ezinbestekotzat jo zuten.

Taldeko partaideek ez zuten zehaztu nahi izan drogen legalizazioaren alde edo kontrako beren jarrera, baina hizketan hasi beharra aipatzen da txostenean. Gerardo Castillo Askagintza taldeko partaidearen ustez, «debat-
teak ez luke izan behar legaliza-

zioa bai edo ez. Garrantzitsuena da horretarako dauden baldintzak aztertzea. Lortu behar dena da gizakume eta osasunaren aldeko legalizazioa eta ez beste interesen aldeko legalizazioa».

Txostena indarrean dagoen Nafarroako Drogen Egitasmoa beraztertzearen alde agertzen da, eta berriki hori «denon partaidetzarekin» egin behar dela dio. Halaber, talde ezberdinen —Gobernua, udalak, eta abar— egin behar mugatzea aldarrikatzen dute taldeek, laguntzak igotzearen alde agertzen diren bitartean. Prebentziorako bost puntu aipatzen dira, eta lehen-dabizikoan bizitzaren kalitatearen hobekuntzaz ari da. Horretarako, marginazioa, langabezia dauden gazteen egoera eta hirietako toki hondatuenei buruz egitasmoak egitea proposatzen da bertan.

Txostenak ere oso garrantzizkotzat jotzen du familia preben-

tsuak sortzea litzateke, eta berebiziko garrantzia paratzen zaio 12 eta 16 urte bitarteko adinari.

Prebentzio arloan ere taldeen garrantzia azpimarratzen da, bai gazte taldeak, nola auzo taldeak, kultur taldeak, eta abar. Asistentziari dagokionez, «aurkitutako zenbait eskasia» aipatzen da txostenean. Horrela, baliabide falta salatzen du, bai horretarako prestatuta dagoen langilegoan nola tokiak ospitaleetan edota familien dirulaguntzetan. Halaber, asistentzian «burokrazia sobera» dagoela aipatzen da, eta Justizia Ministeritzarekin konbenioa berezia egitearen alde agertzen dira taldeak, Kode Penala aldatu ahal izateko drogazaleen epai-



keten kasuetan.

Laugarren puntua bergizartearatzearena da, eta hor funtsezkotzat jotzen dute taldeek gizarte guztiaren partaidetza. «Horretarako udalen gizarte zerbitzuak eta administrazioaren beraren inplikazioa oso garrantzitsua da». Droga trafikoa barruan, indarrean dauden alkoholari buruzko legea eta publizitateari buruzkoa betetzea eskatzen dute taldeek, eta baita trafikanteekin orain arte eramandako politika aldatu beharra.

tzioa lantzeko orduan, eta dei egiten dio administrazioari horretarako laguntzak eman ditzan.

«Eskolak pertsona bakoitzaren ahalmen guztiak garatu behar ditu» dio txostenak, «kritika, askatasuna eta erabakitze ahalmena bultzatzeko». Honen helburua jarrera eta ohitura osasun-

Droga batzordea talde guztien iritzia aztertze gertu dago

M.K. / IRUÑEA

Nafarroako Droga Batzordea hamahiru lagunek osatua da, Parlamentuaren osakeraren araberakoak. Horrela, bost UPN taldeak aukeratutakoak dira, lau PSNk aukeratutakoak, beste bi HBren partetik, eta EA eta IUtik bana. Denak dira drogaren inguruan nolabaiteko harremana izan dutenak.

Orain arte bi bilera baino ez ditu egin batzorde honek, lehen-dabizikoa batzordea bera osatzeko, eta bigarrena, hasierako egutegia zehazteko. Hirugarrena heldu den astean egingo da, eta horretarako drogomenpekotasunaren arazoaren inguruan dihardun zenbait talderi egin zaio deia.

Izan ere, batzordeak talde guzti-ekin hitzeginetako asmoa badu


hasieratik, Alfredo Garcia bertako presidentea azaldu duenez. «Lehendabiziko pausua, eta ez da bakarra izango, jakina, lan honekin lanean ari diren taldeekin harreman estua lortzea izango da, beren iritzia azaltzeko, dauden txostenak ezagutzeko, eta abar». Hemen ez lirateke sartuko taldeak bakarrik, baita honen inguruan ari diren zenbait lantalde ere, hala nola abokatuak, psikologoak, gizarte zerbitzuak, udalak eta abar.

Helburua drogaren inguruan txostena egitea litzateke, hori aurkezteko epea ez izan arren. Txosten horren oinarria ere taldeekin izandako elkarrizketak izango dira, Garciaren esanetan. «Behin talde guzti horien informazioa jasota, eta egoeraren azterketa eginda, orduan neurri

zehatzak proposatuko dizkiogu parlamentuari, honek bere erabakiak har ditzan».

LANERAKO EPERIK EZ Garciak ez zuen horretarako eperik eman nahi izan, hori batzordearen aurrean pasako diren taldeen arabera izango bait da. «Horrekin osatuko dugu egutegi bat, eta denon artean gauzatuko ditugu epe eta helburu zehatzagoak. Izan ere, nere ustez, gai hau ezin da bakarrik politikoen eskutan utzi. Gizarte osoko lana da, eta gizartearen inplikazioa lortzen badugu zerbait polita aterako da, bestela, alferrikako lana izango da».

Ahalik eta talde gehien deitze-ko asmoa ere badu batzordeak, eta horretarako zerrenda egina dauka dagoeneko.



Alfredo Garcia, batzordeko presidentea.

JOXE

Angel Eraul

UAGNko lehendakaria

Joan den astelehenean nekazarien manifestazioa izan zen Iruñean, UAGN nekazal sindikatuak deituta. Europako nekazal politika eta bere eragina nekazari nafarren gan izan zen horren zioa. UAGNko ordezkari bat Alli presidenteare-

kin bildu zen ondoren, baina hitz hutsek baino ez zutela aditu azaldu zuten nekazariak. Angel Eraul UAGNko presidentek laburbilduta azaldu zuen askoren gogoia: «Nekazaritzan aritzeko ilusioa berreskuratu beharra dago».

«Ez gaituzte Europarako prestatu»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Asteleheneko manifestazioan lema bat errepikatu zenuten behin eta berriro: 'Nekazaritzan aritzeko ilusioa berreskura dezagun'. Zer esan nahi zenuten zehazki?

ANGEL ERAUL.— Oraingo nekazaritzaren politikak bi helburu garbi ditu: gutxiago ekoiztu, eta konpentsazio gehiago izan horren truke. Nekazarien betiko ilusioa eta gogoia gehiago ekoiztea izan da, urtetik urtera haztea, alegia. Oraingo politikarekin guzti hau ezinezkoa da betetzea, eta nekazariak administratiboa beharko du izan. Hau da, beti arituko da dirulaguntzen atzetik, azkenean diru piskat ateratzeko.

EGUNKARIA.— Hala ere, dena horren kontra doa. Ekoizpena murrizteko dirulaguntzak gero eta handiagoak dira, eta nekazaritzan gero eta jende gutxiago aritzen da.

ERAUL.— Bai, horrela da tamalez. Agian asko eta asko soberan gaude nekazaritzan,

garai batean Europara saldu bait gintuzten eta gaizki saldu, gainera. Orain ezinezkoa zaigu Europako beste estatu askotan dituzten azpiegiturekin borroka egin, eta atzetik gabiltza beti, nabarmen gainera. Hemen bizi eta jasan dugun nekazaritzaren politika ez da batere egokia izan aurrean genuen erronkarako: European sartzea, alegia, eta oraingo guztia horren ondorio garbia da. Ez gaituzte ongi prestatu European sar-

tzeko.

EGUNKARIA.— Nekazaritzari haize berriak emateko, gazteak errekuaratu beharra nabaria da. Nola lortu liteke horrelakorik?

ERAUL.— Nekazaritzaren abeltzantzan jauntxokeri asko izan da betidanik. Zaharrak hil arte izan dira lurren jabeak, eta guk ezagutu dugu jende asko jubilatuta arte aitarendako lan egiten aritu izan dena. Zer ilusio izan lezake horrek, berak lan egiten dituen lurretan inolako partehartzerik gabe? Nafarroan, gaur egun, oraindik oso gutxi dira bere lurren jabe diren gazteak. Hala ere, gazteak nekazaritzara berriro eramatearen aldekoak gara, eta UAGNn barruan badaude asko horrelako asmoak dituztenak. Izan ere, geldituko direnek etorkizuna dutelako. Guk garbi dugu: nekazari-

tza beharrezkoa da, ezin dute kendu zeharo, eta etorkizuna badago bertan.

EGUNKARIA.— Eta gazteak mantentzeko kooperatibak izan daitezke irtenbidea?

ERAUL.— Dударik gabe. Nekazaritzaren

etorkizuna asoziazionismoa da. Orain dela hamabost bat egun dirulaguntza zenbaitzue onartu zituen Nafarroako Parlamentuak, CUMAREndako. Hauek dira hiruzpalau pertsonen osatutako lan elkarteak, denen artean nekazaritzan aritzeko. Horrela, batek lan bat egingo luke, beste batek beste bat, bereiztuta, eta denen artean ateratakoarekin mantenduko litrateke aziendak. Garbi dago, indibidualismoak ez dauka etorki-



Angel Eraul.

JOXE

zunarik nekazaritzan.

EGUNKARIA.— Egun gutxitan bi manifestazio izan dira Nafarroan gai berberarekin. Bat EHNEk antolatuta eta bestea UAGNk. Egoera hain larria izanda, ez litzateke hobe ahaleginak batzea?

ERAUL.— Arazoa bere neurrian eta garbi ulertu behar da. Biok erakunde ezberdinetan gaude, eta erakunde horiek erabakitzen dutenari jarraitu behar diogu bakoitzak. EHNE COAGren barruan dago eta gu AAJJren barruan gaude. Orduan, bakoitzak bere programa dauka, eta guk ez dugu sekulan kritikatuko EHNE, haiek guri kritikak bota badizkigute

na borroka ez al dago urrunago, Madrilan edo Brusellen?

ERAUL.— Nafarroako Gobernuak Madrili leporatzen dizkio ardurak guztiak, eta Madrilera Bruseli. Brusellen ez digute ulertzen, eta ez daukagu zer eginik. Orduan, gure ustez, denek badute zer esanik, bakoitza bere

Nafarroako Gobernuak Madrilekoari leporatzen dizkio ardurak guztiak, eta Madrilera Bruseli. Brusellen ez digute ulertzen, eta ez daukagu zer eginik. Gure ustez, denek badute zeresanik, bakoitzak bere arloan.

mailan. Alliri esan genion konpromezua hartzeko, zerbait egiteko. Baina erantzuna joan aurretik ere ezagutzen genuen: dena hitz onak, baina gehiagorik ez. Interes politikoez eragin handiagoa dute besteek baino.

EGUNKARIA.— Zeintzu izango dira UAGNren hurrengo mobilizazioak?

ERAUL.— Badago egutegi bat egina, eta horri jarraitu behar diogu. Apirilaren 9, 10 eta 11n mobilizazioak izango dira Estatu osoan eta UAGNk ere hartuko du parte horietan. Hori izango da irteera sindikatu guztiek egin nahi dugun mobilizaziorako, Espainiako Nekazaritzaren Ministerioaren aurrean. Espero dezagun behar den erantzuna izatea.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

